

**NOR-NORK / Baldintza**

	NIK	HIK (g)	HIK (e)	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HAREIK
NI		banindduk baninduk	baninddun banindun	baninddu banindu banindduk baninddun		banindduzu baninduzur	banindduzue baninduzur	baninddu banindu banindduk baninddun
HI (g)	bahinddut bahindut			bahinddu bahindu	bahinddu bahindugu			bahinddu bahindu bahindduk bahinddun
HI (e)	bahinddut bahindut			bahinddu bahindu	bahinddu bahindugu			bahinddu bahindu bahindduk bahinddun
HA	banau banu banaixok banaixon	bahu bahu	bahu bahu	balau bafu balaixok balaixon	bagau bagenu bagaixok bagaxion	bazau bazenu	baganduzue baganduzur	baginddu bagindu bagindduk baginddun
GU		bagindduk bagintuk	baginddun bagintun	baginddu bagintu bagindduk baginddun				baginddu bagintu bagindduk baginddun
ZU	bazinddut bazintur			bazinddu bazintu	bazinddu bazindugu			bazinddu bazintu bazindduk bazinddun
ZUEK	bazindduet bazintuzer			bazinddu bazintu	bazinddu bazindugu			bazinddu bazintu bazindduk bazinddun
HAREIK	banittu banitu banittuk banittun	bahittu bahitu	bahittu bahitu	bahittu bahitu bahittuk bahittun	bahittu bahitu bahittuk bahittun	bahittuzue bahittuzur	bahittuzue bahittuzur	bahittu bahitu bahittuk bahittun

Deba Ibarreko **10**  
*Aditz-etaulak*  
 (Debagoiena)

**NOR-NORK / Ondorioa**

	NIK	HIK (g)	HIK (e)	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HAREIK
NI		rendiduk rendiduk	rendiddun rendidun	rendiddu rendidu rendidduk rendiddun		rendidduzu rendiduzur	rendidduzue rendiduzur	rendiddu rendidu rendidduk rendiddun
HI (g)	rendiddut rendidut			rendiddu rendidu	rendiddu rendidugu			rendiddu rendidu rendidduk rendiddun
HI (e)	rendiddut rendidut			rendiddu rendidu	rendiddu rendidugu			rendiddu rendidu rendidduk rendiddun
HA	rendiau rendiu rendiaixok rendiaixon	rendihu rendihu	rendihu rendihu	rendiauu rendiaufu rendiaiaixok rendiaiaixon	rendiauu rendiaufu rendiaiaixok rendiaiaixon	rendiauzue rendiauzur	rendiauzue rendiauzur	rendiddu rendidu rendidduk rendiddun
GU		rendidduk rendidutuk	rendiddun rendidutun	rendiddu rendidutu rendidduk rendiddun				rendiddu rendidutu rendidduk rendiddun
ZU	rendiddut rendidutur			rendiddu rendidutu	rendiddu rendidugu			rendiddu rendidutu rendidduk rendiddun
ZUEK	rendidduet rendidutuzer			rendiddu rendidutu	rendiddu rendidugu			rendiddu rendidutu rendidduk rendiddun
HAREIK	rendittu renditu rendittuk rendittun	rendihitu rendihitu	rendihitu rendihitu	rendihittu rendihitu rendihittuk rendihittun	rendihittu rendihitu rendihittuk rendihittun	rendihittuzue rendihittuzur	rendihittuzue rendihittuzur	rendihitu rendihitu rendihittuk rendihittun

# Aramaioko

# *Aditz-etaulak*

Badihardugu Euskara Elkarte

Egilea: Jose Luis Ormaetxea Lasaga  
Koordinatzailea: Badihardugu Euskara Elkartea  
Azala eta inprenta: Gertu Komunikaziobide, Oñati

Argitalpena:  
BADIHARDUGU Euskara Elkartea:  
[www.badihardugu.com](http://www.badihardugu.com)  
[argitalpenak@badihardugu.com](mailto:argitalpenak@badihardugu.com)  
Otaola hiribidea 1, Markeskoa Jauregia,  
20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943121775

I.S.B.N.: 978-84-6154241-3  
Lege Gordailua: SS-1513-2011

Deba ibarra. 2011ko azaroa

## Aurkibidea

Atarikoa .....	1
Sarrera.....	2
Indikatiboa .....	5
Baldintza .....	8
Ahalera .....	11
Subjuntiboa eta Agintera .....	12
Aditz trinkoak .....	13

## Atarikoa

**E**sku artien dauketzun lan hau Badihardugu Euskara Elkartiek martxan ipini dauen proiektu baten parte da. 2005. urtien martxan jarritako proiektu honen asmue Deba ibarreko 17 herrixetako aditz-taulak osatu eta zabalketie da.

Lantxo honetan aditz ezagun eta ebalixenak bakarrik batu gure izan dittugu modu praktiko eta labur bati danon eskure ipinteko. Aditzek modu zabalaguen jasota daz Jose Luis Ormaetxea “Txipi”-k egindako “Aramaio euskara” eta “Aramaio euskara (azterketa dialektologikoa)” liburuetan. Bertan herriko hizkerie batute dau eta aditze osotasun haundixaguen agerketan da.

Ahoz gehixen entzuten dien formak jaso dittugun arren, hemen agerketan dien aditz-formak idazteko orduen ebaltekuek die, hau da, lan honetan gure herriko berbetan idazteko balixoko duskun proposamena egin gure izen dogu. Hori dala eta, forma osuek idatzi dittugu; *gara, ga* ahoskatu arren, *dogu, dou/dau* ahoskatu arren edo *zaittuogu, zaittuou* ahoskatu arren. Horretarako, adizki batzuen formie eta egitturie osaketako, paradigmnen batasunari eta logikiari kasu egiñez, eta euskera batuari begire lan egin dogu; azken baten, euskerie bat dala erakutsi eta herrikuaren eta batuaren arteko zubi-lana egitteko asmuaz sortu dogu lan hau.

Tauletan lehenengo Aramaioxon esaten dan formie agerketan da, azpixin batuari dagokixon formie eta azpirago hitanoko formak, lehenengo gizezkuari berba egitterakuen ebalten dana eta gero emakume bati berba egitterakuen ebaltekue.

Aditz-forma batzuetan parentesixek ikusiko dittuzue; horrek esan gure dau bi/hiru modutara esaten/entzuten dala aditz hori: parentesi barrukue be esanda edo esan barik. Beste batzuetan aditz-forma bi be ipini dittugu, forma bixek entzuten dielako bardin samar, eta horregaittik bata zein bestie ontzat emon dittugu.

Lan hau ikusi ostien konturaketan bazara zure belarrirako ezezagunek dien formak agerketan die-la edo zure inguruen beste modu baten esaten die-la, gustora hartuko dittugu zure komentari, eretxi eta proposamen danak. Ia ba, gure dozun arte!

*Badihardugu Euskara Elkartia*

## □ Aramaixo aldeko aditzaren berezitasunek

Lehenengo esan biher dana da aditz-taulak nahiko osatuek agerketan badie be, adizki guztixek ez diela bardin ebalten. Hiztunek adizki kopuru txikixe ebalten daue eguneroko jardunien. Jeneralien, esan leike batez be indikatiboko formak ebalten diela, eta gaiñerakuek oso gutxi. Gaiñera, hiztunek zalantza ugari erakusten daue, batez be ahaleran eta subjuntibuen.

Aditz laguntzaillien, NOR saille da gehixen ebalten dana, baiñe subjuntiboko formak eta ahalerako lehenaldikuek ez die asko ebalten. NOR-NORI saillien bakarrik 3. pertsonari dagozkixon formak ebalten die; baldintzaren ondorixuen sarri indikatiboko lehenaldiko formak ebalten die, eta ahaleran nahaste haundixe dau. NOR-NORK saillien indikatibokuek die ebalixenak. Subjuntibokuek oso gutxitan ebalten die, eta ahalerakuek ixte bakarrik objektue hirugarren pertsonie danien. NOR-NORI-NORK saillien be indikatibotik aparteko adizkixek oso urri ebalten die.

Aditz trinkuetan, iragangaitzetan (*egon, etorri, ibili, joan*) bizixen dazen formak indikatibokuek die, eta iragan-korretan (*jakin, ekarri, eroan, eduki, erabili, \*erautsi*) ixte bakarrik indikatiboko formak ebalten die, eta honeittan objektue hirugarren pertsonie daukienak.

### 1. Partizipue eta aditz-izena

Aramaixoko hizkeran aditz gehixenek amaiera honeittatik bat hartzen daue partizipuen: -TU/DU, -ATU, -AU, -IRU, -I, -N. -TU/DU euskal oiñarrixari lotzen jako: *hartu, batu, sortu, agertu, illundu, zabaldu*. Euskal jatorrixek daukienak eta antxiñe maillegatutakuek -ATU partizipue gorde daue: *aldatu, amorratu, eskatu, geratu, partatu*. Gaztelaniazko -ADO amaierak -AU emon dau Aramaixon: *akabau, enterrau, gustau, kantau, saludau*. Gaztelaniazko -IDO partizipiotik maillegatutako aditzek -IRU egitten daue Aramaixoko euskeran: *atrebiru, entendirru, eskribiru, leiru*. -I hartzen daue euskal errue daukien honeik: *bizi, eballi* 'erabili', *ekarri, erosi, etorri, euki, ikusi, irabazi, jarri*. Euskera Batuen -ki amaiera daukien aditz batzuek -(g)i daukie hemen: *ebai/ebei* 'ebaki', *erabagi* 'erabaki', *eralgi* 'eralgi' (= bahetu), *ixegi* 'eseki', *jagi* 'jaiki'. Baiñe *euki* 'eduki'. -N hartzen dauenak euskal errodunek die: (*e*)in 'egin', *emon/emun* 'eman', *entzun, eruen* 'eroan', *etzin* 'etzan', *fuen/juen* 'joan', *izen* 'izan', *jakin, jan, urten* 'irten'. Gaiñerakuek: -A amaiera daukienak (*ata* 'atera', *bota*); -E amaiera daukienak (*bete, erre, gorde*); -O amaiera daukienak (*igo, itto, jaso, jo*); -L amaiera daukienak: *hil*.

Aditz-izenak egitteko zenbait atzizki ebalten die: -ETAN, -KETAN, -TAN, -TEN, -TZEN, -TUTEN/DUTEN. -ETAN egitten daue -AU amaiera daukien aditzek (gehixenak mailleguek eta bi edo bitik gorako silabadunek): *harrapetan, barriztetan, enterretan, gustetan, kontetan, petsetan/pentsetan, toketan*. -KETAN atzizkixe hartzen daue -ATU amaiera daukien aditzek (danak die hiru silabatik gorakuek eta ixte danak euskal jatorrixkuek edo maillegu zaharrak): *amorraketan, beraketan, eskaketan, lotsaketan, parkaketan*; eta -TU/DU dien partizipuek: *deiketana, neurketan, sorketan, bielketan (& bieltzen), ezkonketan, illunketan, lagunketan, txikiketana*. -TAN egitten daue honako aditz honeik: partizipuen -E daukienek (*betetan, erretan, gordetan*); eta partizipuen -DU daukien aditz bi honeik be azpizen -TAN daukie: *afaitten, bazkaitten*. Aditz-izena -TEN daukie: -I amaiera daukien aditzek (*bizitten, ekarten, erosten, irabazten, jarten*); -A amaiera daukienek (*ataten, botaten*); -O amaieradunek (*igoten, ittoten, jasoten, josten*); -N amaieradunek (*emoten/emuten, etxeitten/etxoitten, jakitten, urteten*); -L amaieradunek (*hillten*); eta -AU amaieradun bi hauek: *armozten, iraten* (<irau 'irago').

-TZEN egitten dauen aditzek: atzizki hau aditzaren partizipue -TU/-DU egitten dauen aditz batzuek hartzen daue (*hartzen, batzen, kentzen, saltzen, bieltzen (& bielketan)*). -TUTEN /-DUTEN egitten dauen aditzek: partizipue -IDU (>IRU) egitten dauenak hartzen daue (danak die mailleguek): *defendiruten, kabiruten, leiruten, sufriruten*. Iñoz, baiñe hau salbuespena da, partizipuen -TU/-DU dauken aditzen batek be hartu leike atzizki hau: *galduten (& galtzen), bazkalduten (& bazkaitten)*.

### 2. Aditz-izena inesibuen eskaketan dauen aditzek

Aditz batzuek aditz-izena inesibo mugagabien eskaketan daue. Mendebaleko euskeraren joerie da hau. FUEN/JUEN: *Ez goiez etxoitten horri; Zure aitte oien paguek ikusten*.

ERU(E)N: *Beraz gure nindduen erutie bere herrire mahats batzen*.

ETORRI: *Eta gero han, zerien, hareik zatixek batzen etorri zien*.

EKIN: *Behixek batzen ekitteko*.

### 3. Pluralgilliek

Aramaixon eta Debagoienien ixte sistematikoki ez dau komunztadurarik objektu pluralaren eta aditzaren artien.

Pluralgillie ixte iñoz ez da ebalten.

Nor-Nori sailleko adizkixetan ez dau: *Izenok ez jat akordetan niri; Gustetan jakuen asko kangrejuek.*

Nor-Nori-Nork saillien be ez: *Berak pagau uskun danak; Emon be egin utsien ederrak.*

Nor-Nork: \**Edun* aditzek, ostera, komunztadurie egitten dau indikatibuen eta baldintzan: *dau/dittu; auen/zittuen; balau/balittu; lauke/littuke*. Pluraleko lehen eta bigarren pertsonetan pluralgillie daukien adizkixek zein ez daukienak entzun leike: *gaittu/gau, gaittue/gaue, zaittut/zaut, zaittuet/zauet*. Eta analogiaz pluralgillerik biher ez dauen singularreko lehen pertsonara be zabaldu da *-it-*: aldaera ebalixenak *nau* eta *naue* badie be, *naittu* eta *naittue* be entzun leike.

Ahaleran, subjuntibuen eta aginteran ez dau komunztadurarik: *Horrek ezin leike ezagutu nire anaiek; Eran daigun kopak; Ekarrizu horreik ardixok.*

Aditz trinko iragankorrek be ez daue numero-komunztadurie gordetan.

EKARRI: *Ogixek badakatzu?*

ERJEN: *Zer daruetzu hor poltsan? Hemen poltsan diskuek eta liburuek daruet.*

EUKI: *Harek auken materixel batzuk...*

JAKIN: *Nik ez nakixen horreik gauza guztiok.*

EBALI (erabili): *Zuk pentsamentu txarrak dabitzu hor buruen.*

#### 4. Jokaera berezixe daukien aditzek

Aditz batzuek jokaera nahiko berezixe daukie:

**Akordau:** Aramaixon aditz honen esangura nagusixe *gogoratu* da. Adiera horreittan hiru erabillera dittu: 1) Nor: *Horixe ondo akordetan naz, e?*; 2) Nor + soziatibue: *Zu ez zara akordauko Paulo difuntuaz*; 3) Nor-Nori: *Eta hara juenda gosetute eta, ba, niri neurie akordau jatan*. Beste adiera bat *bururatu* ('ocurrirsele a uno') da. Nor-Nori erara jokaketan da: *Eta gero akordau jakun fuetie zerera...*

**Hasarretu:** Batez be Nor erara: *Hasarretu egin da hori*. Nor-Nori be bai, baiñe ez da orokorra: *Hasarretu egin jako*.

**Berotu:** Nor erara: *Berotu egin dok*. Nor-Nori be bai, baiñe ez da orokorra: *Berotu egin jako*.

**Begittu:** *Etxein* aditzaren jokaera bera dauko: objektue dauenien Nor-Nori-Nork (*Eta hari paguei jausi arte beti begiketan nutsen*), eta objekturik ez dauenien Nor-Nork (*Basora begittizu*).

**Biher/bi:** jokaera bi dittu: Nor-Nork (*Bestiek pentsaute aukien susa topetan juen biher gela*) eta Nor (*Danien ibili biher gitzen*). Lehenengue da gehixen ebalten dana.

**Damutu:** Nor-Nori erara jokaketan da: *Ondo damutu jat*. Nor erara be bai: *Damutu nok*.

**Garbatu:** Nor-Nori erara jokaketan da: *Ondo garbatu jat niri hori egittie*. Nor erara be bai: *Garbatu nok*.

**Deittu:** aditz honek Nor-Nori-Nork eskaketan dau: *Deittuko dutsut telefonotik bixer*. Objekturik ez dauenien, Nor-Nork: *Eta gu treintaiseisko kinttuek gintzoan, eta deittu juen, ba, mobilizau juen*.

**Ekin:** Aramaixon batez be Nor erara jokaketan da: *Eta ekin zan negarrez aittejaune, laztanka berari*. Beste berbeta batzuetan aukera bakarra dan Nor-Nori-Nork era be bai: *Lanien ekin jutsek*.

**Ezin izen:** beragaz doien aditze iragangaitza bada, adizkixe Nor erakue izengo da (*Baiñe etxeraiño ezin zan etorri taxisien*), eta aditze iragankorra bada, adizkixe Nor-Nork erakue (*Baiñe eurak ezin izeten auen urten*). Bestalde, adizkixe ahaleran jokatu leike (*Ezin neike juen; Ezin neitzu horixe, ezin neitzu holan esan*), edo indikatibuen (*Nik, barrez, begixen aurrien be ezin dot ikusi deporterik*).

**Etxein/etxoïn:** Euskaltzaindiak emondako arau jarraiketan da bete-betien, hau da, objektue dauenien Nor-Nori-Nork (*Etxeirek zortzirek arte, etorriko nok eta*), eta objekturik ez dauenien Nor-Nork (*Gehixau ez dau etxoingo*).

**Falta izen:** Nor erara jokaketan da *faltatu* 'faltar' esangurariagaz (*Gaiñera, egon zan denporan, ba, ogixe falta izen zan*). Baitte Nor-Nori erara be (*Esaiok ezebe ez dotela biher, ezebez, e! Ez jatela ezebe falta*). Baiñe Nor-Nork era be hartu leike (*Gizonak falta gittuen, baiñe geu bestelan, egotez, ondo egon gitzen, e?*).

**Gure izen:** Jokaera ugarixena, zalantza barik, Nor-Nork era da (*Ni neskatilla gaztie, hamahiru urte edo, eta derrigor juetie gure nen liñue joten haraxe*). Nor-Nori-Nork era be arrunta da, 'querer (a alguien)', amar' adieragaz (*Zabolako andrak asko gure ustien niri orduen*).

**Igo:** Aditz hau iragankorra da berbeta honetan: *Goxien teillatura igo joat; Horra altura igo nen*.

**Jardun:** *Jardun* berba ezagune da Aramaixon izen zein aditz moduen, baiñe adizki trinkorik ez da ebalten, perifrastikue ebalten da: *Lanien jardun dau oin artien*.

**\*Erautsi:** Gaur ixte galdute badau be, zaharren ahotan ondion iñoz entzun leike *erautsi* 'ari izan, jardun' aditzaren formaren bat: *darutset, darutso, darutsau, darutsezu*... Hona Aramaixoko adibide bat: *Badarutsek lanien hi be?* Gaur, dana dala, *ibili* eta *egon* ebalten die: *Gox guztien leiduten egin dau eta atsaldien be leiduten dabil.*

**Jarraittu:** *Jarraittu* aditze iragankorra da Aramaixon. Nor-Nork: *Zu fuen zaiz aurretik, nik jarraittuko zaut eta.* Nor-Nori-Nork: *Poliziak ordu bixen jarraittu jutsek lapur horri.*

**Kunplidu:** Nor-Nork erara: *Larogei urte kunplidu jittuk.* Nor-Nori era be onartzen dau: *Juliri honenbeste urte kunplidu jakok.*

**Lagundu/lagun egin:** *Lagundu* aditzek Nor-Nori-Nork eskaketan dau 'ayudar' adieran: *Neuk lagundu nutsan eta ebagi jutsan.* Eta baitte 'acompañar' adieran be: *Gabien lagundu gutsen zererañño.* Bigarren adiera honeittan badogu antzeko beste aditz-lokuziño bat, *lagun egin*, bardin jokaketan dana: *Eta, neu be fueteko lagun egitten berari.*

**Pentsau:** Nor-Nori erara jokatu leike, 'iruditu' adieran: *Neuri hobeto pentsetan jat, gaiñera, oin egitten dana.* Beste berbetetan ohikoague dan Nor-Nork era be onartzen dau, batzuetan 'uste izan' adieran: *Pentsetan dot hortxe egongo dala ha errebitatxue.*

**Begittendu:** Aditz hau gaur ez da oso ebalixe, baiñe lehenago bai. Nor-Nori erara jokaketan da: *Begittendu jat ulixe ete dan...* Beste batzuek *begitentziño bat egin* ebalten daue: *Horri begitentziño bat egin-go jakon.*

**Zoratu:** Gaur egun Nor erara jokaketan da batez be, baiñe Nor-Nori era be hartu leike: *Zoratu egin jatzu ala, hori egittuko?*

**Urten:** Mendebal osuen legetxe, iragankorra da. Nor-Nork: *Orduen andrak solora asko urteten euen.* Nor-Nori-Nork: *...izera zurixaz eta urteten dutso, kataian batzuk tatarrez diela.*

## 5. Tratamenduek

Gaur egun Aramaixon bizi-bizirik dazen tratamenduek bi die: *neutruue* edo *eztabadakue* eta *hikakue*. Hika-ko adizkixek oso bizirik daz, gutxienez adiñekuen artien. Bestalde, hirugarren erregistro bat be badau, *berorika*.

### Berorika

Bizimodue aldatu dan neurrixen, *berorika* galtzen joan da. Garai batien normala zan abade, mediku eta abarrei *berorika* egittie. Gaur egun edadekuek bakarrik daukie erregistro horren barri, eta euren be ixte ez daue ebalten.

### Hika

Aramaixoko berbetan (Debagoieneko gaiñerako herrixetakuen moduen) hikako adizkixen hasieran *j-* entzuten da asko. *j-* hori agerketan da: NOR-NORK: indikatiboko NOR hirugarren pertsonetan: *jok, jittuat, jonan, jittuan.* Ahalerako lehenaldixen be bai (baiñe hemen bai NOR eta bai NORK hirugarren pertsonakuek izen biher daue): *jeikian.* NOR-NORI-NORK: indikatiboko NOR hirugarren pertsonetan: *jutsenat, jutsau, jutsan, juskunan.* Ahalerako lehenaldixen be bai: *jeikian.* Aditz trinkuek: aditz iragangaitz eta aditz iragankorretako indikatiboko NOR hirugarren pertsonetan: *jak, jatorrenan, jabitzek, joien, jakixenat, jakarrau, jaukiek.* Hemen be, NOR-NORI sailleko adizkixekin moduen, 'ez + j-' > *etx-*: *etxok, etxutsau, etxak.*

Alokutibuek sintaxi maillako debekuek dauko. Esaterako, perpau txertatuetan ez die forma alokutibuek ebal biher. Aramaixon ez da guztiz betetan arau. Perpau txertatu gehixenetan bai: *Ja abade naustue zoan hona etorri zanagerako be;* *Pentsetan joan ni tontokerixa batzuk esan eta engaiñauko nindduela, baiñe nik igerrri nutsan hak tontokerixak esan zittuena;* *Bueno, mezie emoten auela harrapau juen;* *Guk izena baleuko moduen esaten jutsau "astakiñerrie";* *Eta bestie ez jakixat, emakumakana juen zalako* edo *zegaittik, ha be garbi.* Baiñe alokutibue ebalten da: Galde-perpauetan: *Horren aurrien zela esango joat ba?;* *Pedro Ulie bajabik lanien? Eta-ren bidez egitten dien kausazko egituretan: Kardulatzak zerak eukittien jittuk, arantzak, pikau egitten juek eskue, sartu egitten dittuk eta.* Baldintzetan: *Parte onekue badok, txarrekue badok, ikusi biher juau noraiñokue dan.* Baldintzan normalena alokutibue ebaltie bada be, iñoz entzun leike adizkera neutruue: *Orduen, orduen be neurie izen balitze, gordeko naixoan nik ha.*

Aramaio, Debagoiena

**NOR / Indikatiboa**

	ORAINA	LEHENA
NI	naz naiz nok non	ni(n)tzen nintzen ni(n)tzoan ni(n)tzonan
HI (g)	haz haiz	hi(n)tzen hintzen
HI (e)	haz haiz	hi(n)tzenan hintzen
HA	da da dok don	zan zen zoan zonan
GU	gara gara gaittuk gaittun	gi(n)tzen ginen gi(n)tzoan gi(n)tzonan
ZU	zara zara	zi(n)tzen zinen
ZUEIK	zare zarete	zi(n)tzien zineten
HAREIK	die dira dittuk dittun	zien ziren zittuan zittunan

**NOR-NORI / Indikatiboa - Oraina**

	NIRI	HIRI (g)	HIRI (e)	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAEI
HA/HAREIK	jat zai(zki)t jatek jaten	jak zai(zki)k	jan zai(zki)n	jako zai(zki)o jakok jakon	jaku zai(zki)gu jakuk jakun	jatzu zai(zki)zu	jatzue zai(zki)zue	jak(u)e zai(zki)e jakuek jakune

**NOR-NORI / Indikatiboa - Lehena**

	NIRI	HIRI (g)	HIRI (e)	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAREI
HA/HAREIK	jaten zitzaizaki)dan jatan jatenan	jatan zitzaizaki)an	jatenan zitzaizaki)nan	jakon zitzaizaki)on jakoan jakonan	jakun zitzaizaki)gun jakuan jakunan	jatzun zitzaizaki)zun	jatzuen zitzaizaki)zuen	jak(u)en zitzaizaki)en jakuan jakunen

## NOR-NORK / Indikatiboa - Oraina

	NIK	HIK (g)	HIK (e)	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HAREIK
NI		<b>nok</b> <i>nauk</i>	<b>non</b> <i>naun</i>	<b>nau</b> <i>nau naixok naixon</i>		<b>nozu</b> <i>nauzu</i>	<b>nozue</b> <i>nauzue</i>	<b>naue</b> <i>nauite naixuek naixone</i>
HI (g)	<b>haut</b> <i>haut</i>			<b>hau</b> <i>hau</i>	<b>hau</b> <i>haugu</i>			<b>haue</b> <i>haute</i>
HI (e)	<b>haut</b> <i>haut</i>			<b>hau</b> <i>hau</i>	<b>hau</b> <i>haugu</i>			<b>haue</b> <i>haute</i>
HA	<b>dot</b> <i>dut joat jonat</i>	<b>dok</b> <i>duk</i>	<b>don</b> <i>dun</i>	<b>dau</b> <i>du jok jon</i>	<b>dogu</b> <i>dugu juau junau</i>	<b>dozu</b> <i>duzu</i>	<b>dozue</b> <i>duzue</i>	<b>daue</b> <i>dute juek june</i>
GU		<b>gaittuk</b> <i>gaituk</i>	<b>gaittun</b> <i>gaitun</i>	<b>ga(itt)u</b> <i>gaitu gaittuk gaittun</i>		<b>gai(tte)zu</b> <i>gaituzu</i>	<b>gai(tte)zue</b> <i>gaituzue</i>	<b>ga(itt)ue</b> <i>gaituzte gaittuek gaittune</i>
ZU	<b>za(itt)ut</b> <i>zaitut</i>			<b>za(itt)u</b> <i>zaitu</i>	<b>zaittuogu</b> <i>zaitugu</i>			<b>za(itt)ue</b> <i>zaituzte</i>
ZUEK	<b>za(itt)uet</b> <i>zaituztet</i>			<b>za(itt)ue</b> <i>zaituzte</i>	<b>zaittuogu</b> <i>zaituztegu</i>			<b>za(itt)ue</b> <i>zaituztete</i>
HAREIK	<b>dittut</b> <i>ditut jittuat jittunat</i>	<b>dittuk</b> <i>dituk</i>	<b>dittun</b> <i>ditun</i>	<b>dittu</b> <i>ditu jittuk jittun</i>	<b>dittugu</b> <i>ditugu jittuau jittunau</i>	<b>dittezu</b> <i>dituzu</i>	<b>dittezue</b> <i>dituzue</i>	<b>dittue</b> <i>dituzte jittuek jittune</i>

## NOR-NORK / Indikatiboa - Lehena

	NIK	HIK (g)	HIK (e)	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HAREIK
NI		<b>nindduan</b> <i>ninduan</i>	<b>ninddunan</b> <i>nindunan</i>	<b>nindduen</b> <i>ninduen nindduan ninddunan</i>		<b>nindduzun</b> <i>ninduzun</i>	<b>nindduzuen</b> <i>ninduzuen</i>	<b>nindduen</b> <i>ninduten nindduan ninddunan</i>
HI (g)	<b>hindduan</b> <i>hindudan</i>			<b>hindduan</b> <i>hinduen</i>	<b>hindduan</b> <i>hindugun</i>			<b>hindduen</b> <i>hinduten</i>
HI (e)	<b>hinddunan</b> <i>hindudan</i>			<b>hinddunan</b> <i>hinduen</i>	<b>hinddunan</b> <i>hindugun</i>			<b>hinddunan</b> <i>hinduten</i>
HA	<b>ne(ue)n</b> <i>nuen naixoan naixonan</i>	<b>heuan</b> <i>huen</i>	<b>heuenan</b> <i>huen</i>	<b>auen</b> <i>zuen joan jonan</i>	<b>ge(ue)n</b> <i>genuen gaixoan gaixonan</i>	<b>ze(ue)n</b> <i>zenuen</i>	<b>zeuen</b> <i>zenuten</i>	<b>euen</b> <i>zuten juen junen</i>
GU		<b>gindduan</b> <i>gintuan</i>	<b>ginddunan</b> <i>gintunan</i>	<b>gindduen</b> <i>gintuen gindduan ginddunan</i>		<b>gindduzun</b> <i>gintuzun</i>	<b>gindduzuen</b> <i>gintuzuen</i>	<b>gindduen</b> <i>gintuzten gindduan ginddunan</i>
ZU	<b>zindduten</b> <i>zintudan</i>			<b>zindduen</b> <i>zintuen</i>	<b>zinddugun</b> <i>zintugun</i>			<b>zindduen</b> <i>zintuzten</i>
ZUEK	<b>zindduten</b> <i>zintuztedan</i>			<b>zindduen</b> <i>zintuzten</i>	<b>zinddugun</b> <i>zintuztegun</i>			<b>zindduen</b> <i>zintuzteten</i>
HAREIK	<b>nittuen</b> <i>nituen nittuan nittunan</i>	<b>hittuan</b> <i>hituen</i>	<b>hittunan</b> <i>hituen</i>	<b>zittuen</b> <i>zituen jittuan jittunan</i>	<b>gittuen</b> <i>genituen gittuan gittunan</i>	<b>zittezun</b> <i>zenituen</i>	<b>zittezuen</b> <i>zenituzten</i>	<b>zittuen</b> <i>zituzten jittuen jittunen</i>



**NOR-NORI-NORK / Indikatiboa - Oraina (singularra eta plurala)**

	NIRI	HIRI (g)	HIRI (e)	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAREI
NIK		dustat <i>diat</i>	dunat <i>dinat</i>	dutset <i>diot</i> <i>jutsat</i> <i>jutsenat</i>		dutsut <i>dizut</i>	dutsuet <i>dizuet</i>	duts(i)et <i>diet</i> <i>jutsat</i> <i>jutsenat</i>
HIK (g)	dustek <i>didak</i>			dutsek <i>diok</i>	duskuk <i>diguk</i>			dutsek <i>diek</i>
HIK (e)	dusten <i>didan</i>			dutsen <i>dion</i>	duskun <i>digun</i>			dutsen <i>dien</i>
HAREK	dust <i>dit</i> <i>justek</i> <i>justen</i>	dusk <i>dik</i>	dun <i>din</i>	dutso <i>dio</i> <i>jutsek</i> <i>jutsen</i>	dusku <i>digu</i> <i>juskuk</i> <i>juskun</i>	dutsu <i>dizu</i>	dutsue <i>dizue</i>	duts(i)e <i>die</i> <i>jutsek</i> <i>jutsen</i>
GUK		dustou <i>diagu</i>	dunou <i>dinagu</i>	dutsou <i>diogu</i> <i>jutsau</i> <i>jutsenau</i>		dutsuogu <i>dizugu</i>	dutsuogu <i>dizuegu</i>	dutsou <i>diegu</i> <i>jutsau</i> <i>jutsenau</i>
ZUK	dustezu <i>didazu</i>			dutsezu <i>diozu</i>	duskuzu <i>diguzu</i>			dutsezu <i>diezu</i>
ZUEK	dusteue <i>didazue</i>			dutseue <i>diozue</i>	duskuzue <i>diguzue</i>			dutseue <i>diezue</i>
HAREIK	dust(i)e <i>didate</i> <i>justiek</i> <i>justene</i>	dust(i)e <i>diate</i>	dune <i>dinate</i>	dutsie <i>diote</i> <i>jutsiek</i> <i>jutsene</i>	duskue <i>digute</i> <i>juskuek</i> <i>juskune</i>	dutsue <i>dizute</i>	dutsue <i>dizute</i>	duts(i)e <i>diete</i> <i>jutsiek</i> <i>jutsene</i>

**NOR-NORI-NORK / Indikatiboa - Lehena (singularra eta plurala)**

	NIRI	HIRI (g)	HIRI (e)	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAREI
NIK		nustan <i>nian</i>	nunan <i>ninan</i>	nutsen <i>nion</i> <i>nutsan</i> <i>nutsenan</i>		nutsun <i>nizun</i>	nutsuen <i>nizuen</i>	nuts(i)en <i>nien</i> <i>nutsan</i> <i>nutsenan</i>
HIK (g)	hustan <i>hidan</i>			hutsan <i>hion</i>	huskuan <i>higun</i>			hutsan <i>hien</i>
HIK (e)	hustenan <i>hidan</i>			hutsenan <i>hion</i>	huskunan <i>higun</i>			hutsenan <i>hien</i>
HAREK	usten <i>zidan</i> <i>justan</i> <i>justenan</i>	ustan <i>zian</i>	unan <i>zinan</i>	utsen <i>zion</i> <i>jutsan</i> <i>jutsenan</i>	uskun <i>zigun</i> <i>juskuan</i> <i>juskunan</i>	utsun <i>zizun</i>	utsuen <i>zizuen</i>	utsen <i>zien</i> <i>jutsien</i> <i>jutsenen</i>
GUK		gustan <i>genian</i>	gunan <i>geninan</i>	gutsen <i>genion</i> <i>gutsan</i> <i>gutsenan</i>		gutsun <i>genizun</i>	gutsuen <i>genizuen</i>	gutsen <i>genien</i> <i>gutsan</i> <i>gutsenan</i>
ZUK	ustezun <i>zenidan</i>			zutzen <i>zenion</i>	uskezun <i>zenigun</i>			utsezun <i>zenien</i>
ZUEK	ustezuen <i>zenidaten</i>			zutzien <i>zenioten</i>	uskezuen <i>zeniguten</i>			utsezuen <i>zenieten</i>
HAREIK	ustien <i>zidaten</i> <i>justen</i> <i>justenen</i>	ustien <i>ziaten</i>	usten <i>zinate</i>	utsien <i>zioten</i> <i>jutsien</i> <i>jutsenen</i>	uskuen <i>ziguten</i> <i>juskuen</i> <i>juskunen</i>	utsuen <i>zizuten</i>	utsuen <i>zizuten</i>	utsien <i>zieten</i> <i>jutsien</i> <i>jutsenen</i>

**NOR / Baldintza eta Ondorioa**

	BALDINTZA	ONDORIOA
NI	<b>banitze</b> <i>banintz banitzok banitzon</i>	<b>nitzake</b> <i>nintzateke nitzakek nitzaken</i>
HI (g)	<b>bahitz(e)</b> <i>bahintz</i>	<b>hitzake</b> <i>hintzateke</i>
HI (e)	<b>bahitz(e)</b> <i>bahintz</i>	<b>hitzake</b> <i>hintzateke</i>
HA	<b>balitze</b> <i>balitz balitzok balitzon</i>	<b>litzake</b> <i>litzateke litzakek litzaken</i>
GU	<b>bagitze</b> <i>bagina bagitzok bagitzon</i>	<b>gitzake</b> <i>ginateke gitzakek gitzaken</i>
ZU	<b>bazitze</b> <i>bazina</i>	<b>zitzake</b> <i>zinateke</i>
ZUEIK	<b>bazitzie</b> <i>bazinete</i>	<b>zitzakie</b> <i>zinatekete</i>
HAREIK	<b>balitzez</b> <i>balira balitzozak balitzozan</i>	<b>litzakez</b> <i>lirateke litzakezek litzakezen</i>

**NOR-NORI / Baldintza**

	NIRI	HIRI (g)	HIRI (e)	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAREI
HA/HAREIK	<b>balitxat</b> <i>balitzai(zki)t balitxatek balitxaten</i>	<b>balitxak</b> <i>balitzai(zki)k</i>	<b>balitxan</b> <i>balitzai(zki)n</i>	<b>balitxako</b> <i>balitzai(zki)o balitxakok balitxakon</i>	<b>balitxaku</b> <i>balitzai(zki)gu balitxakuk balitxakun</i>	<b>balitxatzu</b> <i>balitzai(zki)zu</i>	<b>balitxatzue</b> <i>balitzai(zki)zue</i>	<b>balitxakue</b> <i>balitzai(zki)e balitxakuek balitxakuen</i>

**NOR-NORI / Ondorioa**

	NIRI	HIRI (g)	HIRI (e)	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAREI
HA/HAREIK	<b>litxa(ke)t</b> <i>litzai(zki)dake litxa(ke)tek litxa(ke)ten</i>	<b>litxa(ke)k</b> <i>litzai(zki)ake</i>	<b>litxa(ke)n</b> <i>litzai(zki)nake</i>	<b>litxak(i)o</b> <i>litzai(zki)oke litxak(i)ok litxak(i)on</i>	<b>litxaku</b> <i>litzai(zki)guke litxakuk litxakun</i>	<b>litxa(ke)tzu</b> <i>litzai(zki)zuke</i>	<b>litxa(ke)tzue</b> <i>litzai(zki)zueke</i>	<b>litxakie</b> <i>litzai(zki)eke litxakiek litxakiene</i>

**NOR-NORK / Baldintza**

	NIK	HIK (g)	HIK (e)	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HAREIK
NI		<b>banindduk</b> <i>baninduk</i>	<b>baninddun</b> <i>banindun</i>	<b>baninddu</b> <i>banindu</i> banindduk baninddun		<b>banindduzu</b> <i>baninduzu</i>	<b>banindduzue</b> <i>baninduzue</i>	<b>baninddue</b> <i>banindute</i> banindduek baninddune
HI (g)	<b>bahinddut</b> <i>bahindut</i>			<b>bahinddu</b> <i>bahindu</i>	<b>bahinddu</b> <i>bahindugu</i>			<b>bahinddue</b> <i>bahindute</i>
HI (e)	<b>bahinddut</b> <i>bahindut</i>			<b>bahinddu</b> <i>bahindu</i>	<b>bahinddu</b> <i>bahindugu</i>			<b>bahinddue</b> <i>bahindute</i>
HA	<b>banau</b> <i>banu</i> banaixok banaixon	<b>bahu</b> <i>bahu</i>	<b>bahu</b> <i>bahu</i>	<b>balau</b> <i>balu</i> balaixok balaixon	<b>bagau</b> <i>bagenu</i> bagaixok bagaixon	<b>bazau</b> <i>bazenu</i>	<b>bazaue</b> <i>bazenute</i>	<b>balau</b> <i>balute</i> balaixuek balaixuen
GU		<b>bagindduk</b> <i>bagintuk</i>	<b>baginddun</b> <i>bagintun</i>	<b>baginddu</b> <i>bagintu</i> bagindduk baginddun		<b>bagindduzu</b> <i>bagintuzu</i>	<b>bagindduzue</b> <i>bagintuzue</i>	<b>baginddue</b> <i>bagintuzte</i> bagindduek baginddune
ZU	<b>bazinddut</b> <i>bazintut</i>			<b>bazinddu</b> <i>bazintu</i>	<b>bazinddugu</b> <i>bazintugu</i>			<b>bazinddue</b> <i>bazintuzte</i>
ZUEK	<b>bazindduet</b> <i>bazintuztet</i>			<b>bazinddue</b> <i>bazintuzte</i>	<b>bazindduogu</b> <i>bazintuztegu</i>			<b>bazinddue</b> <i>bazintuztete</i>
HAREIK	<b>banittu</b> <i>banitu</i> banittuk banittun	<b>bahittu</b> <i>bahitu</i>	<b>bahittu</b> <i>bahitu</i>	<b>balittu</b> <i>balitu</i> balittuk balittun	<b>bagittu</b> <i>bagenu</i> bagittuk bagittun	<b>bazittu</b> <i>bazenu</i>	<b>bazittue</b> <i>bazenituzte</i>	<b>balittue</b> <i>balituzte</i> balittuek balittune

**NOR-NORK / Ondorioa**

	NIK	HIK (g)	HIK (e)	HAREK	GUK	ZUK (1)	ZUEK	HARIEK
NI		<b>ninddukek</b> <i>nindukek</i>	<b>nindduken</b> <i>ninduken</i>	<b>nindduke</b> <i>ninduke</i> ninddukek nindduken		<b>ninddukezu</b> <i>nindukezu</i>	<b>ninddukezue</b> <i>nindukezue</i>	<b>ninddukie</b> <i>nindukete</i> ninddukiek nindduken
HI (g)	<b>hindduket</b> <i>hinduket</i>			<b>hindduke</b> <i>hinduke</i>	<b>hindduke</b> <i>hindukegu</i>			<b>hinddukie</b> <i>hindukete</i>
HI (e)	<b>hindduket</b> <i>hinduket</i>			<b>hindduke</b> <i>hinduke</i>	<b>hindduke</b> <i>hindukegu</i>			<b>hinddukie</b> <i>hindukete</i>
HA	<b>nauke</b> <i>nuke</i> naukek nauken	<b>hauke</b> <i>huke</i>	<b>hauken</b> <i>huke</i>	<b>lauke</b> <i>luke</i> laukek lauken	<b>gauke</b> <i>genuke</i> gaukek gauken	<b>zauke</b> <i>zenuke</i>	<b>zaukie</b> <i>zenukete</i>	<b>laukie</b> <i>lukete</i> laukiek laukien
GU		<b>ginddukek</b> <i>gintuzkek</i>	<b>gindduken</b> <i>gintuzken</i>	<b>gindduke</b> <i>gintuzke</i> ginddukek gindduken		<b>ginddukezu</b> <i>gintuzkezu</i>	<b>ginddukezue</b> <i>gintuzkezue</i>	<b>ginddukie</b> <i>gintuzkete</i> ginddukek gindduken
ZU	<b>zindduket</b> <i>zintuzket</i>			<b>zindduke</b> <i>zintuzke</i>	<b>zindduke</b> <i>zintuzkegu</i>			<b>zinddukie</b> <i>zintuzkete</i>
ZUEK	<b>zindduket</b> <i>zintuzketet</i>			<b>zinddukie</b> <i>zintuzkete</i>	<b>zinddukiogu</b> <i>zintuzketegu</i>			<b>zinddukie</b> <i>zintuzketete</i>
HAREIK	<b>nittuke</b> <i>nituzke</i> nittukek nittuken	<b>hittuke</b> <i>hituzke</i>	<b>hittuke</b> <i>hituzke</i>	<b>littuke</b> <i>lituzke</i> littukek littuken	<b>gittuke</b> <i>genituzke</i> gittukek gittuken	<b>zittuke</b> <i>zenituzke</i>	<b>zittukie</b> <i>zenituzkete</i>	<b>littukie</b> <i>lituzkete</i> littukiek littukien

**NOR-NORI-NORK / Baldintza (singularra eta plurala)**

	NIRI	HIRI (g)	HIRI (e)	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAREI
NIK		banusk <i>banik</i>	banun <i>banin</i>	banuskio <i>banio banuskiok banuskion</i>		banuskizu <i>banizu</i>	banuskizue <i>banizue</i>	banutse <i>banie banuskixuek banuskixon</i>
HIK (g)	bahust <i>bahit</i>			bahutso <i>bahio</i>	baguskuk <i>bahigu</i>			bahutso <i>bahie</i>
HIK (e)	bahust <i>bahit</i>			bahutso <i>bahio</i>	baguskun <i>bahigu</i>			bahutso <i>bahie</i>
HAREK	balust <i>balit balustek balusten</i>	balusk <i>balik</i>	balun <i>balin</i>	baluskixo <i>balio baluskixok baluskixon</i>	balusku <i>baligu baluskuk baluskun</i>	balutsu <i>balizu</i>	balutsue <i>balizue</i>	balutsie <i>balie balutsiek baluskixune</i>
GUK		bagusk <i>bagenik</i>	bagun <i>bagenin</i>	baguskio <i>bagenio baguskiok baguskion</i>		bagutsu <i>bagenizu</i>	bagutsue <i>bagenizue</i>	baguskio <i>bagenie baguskiok baguskion</i>
ZUK	bazust <i>bazenit</i>			bazutso <i>bazenio</i>	bazusku <i>bazenigu</i>			bazutso <i>bazenie</i>
ZUEK	bazustie <i>bazenidate</i>			bazutsie <i>bazeniote</i>	bazuskue <i>bazenigute</i>			bazutsie <i>bazeniote</i>
HAREIK	balustie <i>balidate balustiek balustene</i>	balustie <i>baliate</i>	balune <i>balinate</i>	balutsie <i>balioie balutsiek balutsene</i>	baluskue <i>baligute baluskuek baluskune</i>	balutsue <i>balizute</i>	balutsue <i>balizute</i>	baliskixue <i>baliete baliskixuek baliskixune</i>

**NOR-NORI-NORK / Ondorioa (singularra eta plurala)**

	NIRI	HIRI (g)	HIRI (e)	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAREI
NIK		nuskik <i>niake</i>	nuskin <i>ninake</i>	niskixo <i>niok niskixok niskixon</i>		nuskizu <i>nizuke</i>	nuskizue <i>nizueke</i>	nuskixue <i>nieke nuskixuek nuskixune</i>
HIK (g)	heskitte <i>hidake</i>			hiskio <i>hiok</i>	giskik <i>higuke</i>			hiskixue <i>hieke</i>
HIK (e)	heskitte <i>hidake</i>			hiskixon <i>hiok</i>	giskin <i>higuke</i>			hiskixune <i>hieke</i>
HAREK	leskitte <i>lidake leskittek leskitten</i>	liskik <i>liake</i>	liskittene <i>linake</i>	liskio <i>liok liskixok liskixon</i>	liskigu <i>liguke liskiguk liskigun</i>	luskizu <i>lizuke</i>	luskizue <i>lizueke</i>	liskixue <i>lieke liskixuek liskixone</i>
GUK		giskik <i>geniake</i>	giskin <i>geninake</i>	giskio <i>geniok giskio giskion</i>		giskizu <i>genizuke</i>	giskizue <i>genizueke</i>	giskixo <i>genieke giskixok giskixon</i>
ZUK	ziskitt <i>zenidake</i>			ziskixo <i>zeniok</i>	ziskigu <i>zeniguke</i>			ziskixo <i>zenieke</i>
ZUEK	ziskitte <i>zenidakete</i>			ziskixue <i>zeniokete</i>	ziskigute <i>zenigukete</i>			ziskixue <i>zeniekete</i>
HAREIK	luskutte <i>lidakete luskutte luskittene</i>	liskiuek <i>liakete</i>	liskiune <i>linakete</i>	liskixue <i>liokete liskixuek liskixune</i>	liskigute <i>ligukete liskiguk liskigune</i>	luskizue <i>lizukete</i>	luskizue <i>lizukete</i>	liskixue <i>liekete liskixuek liskixone</i>

**NOR / Ahalera**

	ORAINA / HIPOTETIKOA	LEHENA
NI	<b>neike</b> <i>naiteke/ninteke</i> <i>neikek</i> <i>neiken</i>	<b>neikien</b> <i>nintekeen</i> <i>neikian</i> <i>neikenan</i>
HI (g)	<b>heike</b> <i>haiteke/hinteke</i>	<b>heikian</b> <i>hintekeen</i>
HI (e)	<b>heike</b> <i>haiteke/hinteke</i>	<b>heikenan</b> <i>hintekeen</i>
HA	<b>leike</b> <i>daiteke/liteke</i> <i>leikek</i> <i>leiken</i>	<b>leikien</b> <i>zitekeen</i> <i>jeikian</i> <i>jeikenan</i>
GU	<b>geike</b> <i>gaitezke/gintezke</i> <i>geikek</i> <i>geiken</i>	<b>geikien</b> <i>gintezkeen</i> <i>geikian</i> <i>geikenan</i>
ZU	<b>zeike</b> <i>zaitzke/zintezke</i>	<b>zeikien</b> <i>zintezkeen</i>
ZUEK	<b>zeikie</b> <i>zaitzketek/zintezketek</i>	<b>zeikien</b> <i>zintezketen</i>
HAREIK	<b>leikie</b> <i>daitezke/litezke</i> <i>leikiek</i> <i>leikene</i>	<b>leikien</b> <i>zitezkeen</i> <i>jeikian</i> <i>jeikenan</i>

**NOR-NORK / Ahalera**

	ORAINA / HIPOTETIKOA	LEHENA
NIK	<b>neike</b> <i>dezaket/nezake</i> <i>neikek</i> <i>neiken</i>	<b>neikien</b> <i>nezakeen</i> <i>neikian</i> <i>neikenan</i>
HIK (g)	<b>heike</b> <i>dezakek/hezake</i>	<b>heikian</b> <i>hezakeen</i>
HIK (e)	<b>heike</b> <i>dezaken/hezake</i>	<b>heikenan</b> <i>hezakeen</i>
HAREK	<b>leike</b> <i>dezake/lezake</i> <i>leikek</i> <i>leiken</i>	<b>leikien</b> <i>zezakeen</i> <i>jeikian</i> <i>jeikenan</i>
GUK	<b>geike</b> <i>dezakegu/genezake</i> <i>geikek</i> <i>geiken</i>	<b>geikien</b> <i>genezakeen</i> <i>geikian</i> <i>geikenan</i>
ZUK	<b>zeike</b> <i>dezakezu/zenezake</i>	<b>zeikien</b> <i>zenezakeen</i>
ZUEK	<b>zeikie</b> <i>dezakezue/zenezaketek</i>	<b>zeikien</b> <i>zenezaketen</i>
HAREIK	<b>leikie</b> <i>dezaketek/lezaketek</i> <i>leikiek</i> <i>leikien</i>	<b>leikien</b> <i>zezaketek</i> <i>jeikian</i> <i>jeikenan</i>

**NOR-NORI-NORK / Ahalera**

		ORAINA / HIPOTETIKOA	LEHENA
NIK	HARI	<b>neikixo</b> <i>diezaioket/niezaioke</i> <i>neikixok</i> <i>neikixon</i>	<b>neikien</b> <i>niezaiokeen</i> <i>neikian</i> <i>neikienan</i>
HIK	HARI	<b>heikixo/n</b> <i>diezaioket-ry/hiezaioke</i>	<b>heikixoan/nan</b> <i>hiezaiokeen</i>
HAREK	HARI	<b>leikixo</b> <i>diezaioke/liezaioke</i> <i>leikixok</i> <i>leikixon</i>	<b>jeikien</b> <i>ziezaiokeen</i> <i>jeikian</i> <i>jeikienan</i>
GUK	HARI	<b>geikixo</b> <i>diezaiokegu/geniezaioke</i> <i>geikixok</i> <i>geikixon</i>	<b>geikixon</b> <i>geniezaiokeen</i> <i>geikixoan</i> <i>geikixonan</i>
ZUK	HARI	<b>zeikixo</b> <i>diezaiokezu/zeniezaioke</i>	<b>zeikizun</b> <i>zeniezaiokeen</i>
ZUEK	HARI	<b>zeikixue</b> <i>diezaiokezue/zeniezaiokete</i>	<b>zeikixuen</b> <i>zeniezaioketen</i>
HAREIK	HARI	<b>leikixue</b> <i>diezaiokete/liezaiokete</i> <i>leikixuek</i> <i>leikixune</i>	<b>leikixuen</b> <i>ziezaioketen</i> <i>leikixuan</i> <i>leikixuenan</i>

**NOR-NORI / Ahalera**

		ORAINA / HIPOTETIKOA	LEHENA
NIRI	HA/HAREIK	<b>leike</b> <i>dakidake/lekidake</i> <i>leikek</i> <i>leiken</i>	<b>jeikien</b> <i>zekidakeen</i> <i>jeikian</i> <i>jeikenan</i>
HIRI	HA/HAREIK	<b>leikek/n</b> <i>daki(n)ake/leki(n)ake</i>	<b>jeikian/jeikienan</b> <i>zeki(n)akeen</i>
HARI	HA/HAREIK	<b>leikixo</b> <i>dakioke/lekiokete</i> <i>leikixok</i> <i>leikixon</i>	<b>jeikien</b> <i>zekiokeen</i> <i>jeikian</i> <i>jeikienan</i>
GURI	HA/HAREIK	<b>leikigu</b> <i>dakiguke/lekiguke</i> <i>leikiguk</i> <i>leikigun</i>	<b>jeikigun</b> <i>zekigukeen</i> <i>jeikian</i> <i>jeikienan</i>
ZURI	HA/HAREIK	<b>leikitzu</b> <i>dakizuke/lekizuke</i>	<b>jeikizun</b> <i>zekizukeen</i>
ZUEI	HA/HAREIK	<b>leikitzue</b> <i>dakizueke/lekizueke</i>	<b>jeikizuen</b> <i>zekizuekeen</i>
HAREI	HA/HAREIK	<b>leikixue</b> <i>dakieke/lekieke</i> <i>leikixuek</i> <i>leikixone</i>	<b>jeikien</b> <i>zekiekeen</i> <i>jeikian</i> <i>jeikienan</i>

**NOR / Subjuntiboa**

NI	nain <i>nadin</i>
HI	hain <i>hadin</i>
HA	dain <i>dadin</i>
GU	gaittezen <i>gaitezen</i>
ZU	zaittezen <i>zaitezen</i>
ZUEK	zaittezen <i>zaitezten</i>
HAREIK	daittezen <i>daitezten</i>

**NOR-NORI / Subjuntiboa (Nor 3. singularra eta plurala)**

Apuntetan noie, ahaztu ez	<b>DAKIDAN</b> <i>dakidan</i>	(Hori/horreik niri)
Apuntau egik hori, ahaztu ez	<b>DAKIXAN</b> <i>dakian</i>	(Hori/horreik hiri, mutille)
Apuntau egin hori, ahaztu ez	<b>DAKIÑAN / DAKIXENAN</b> <i>dakinan</i>	(Hori/horreik hiri, neskie)
Apuntau daixela, ahaztu ez	<b>DAKIXON</b> <i>dakion</i>	(Hori/horreik hari)
Apuntau daigun, ahaztu ez	<b>DAKIGUN</b> <i>dakigun</i>	(Hori/horreik guri)
Apuntau egizu, ahaztu ez	<b>DAKITZUN</b> <i>dakizun</i>	(Hori/horreik zuri)
Apuntau egizue, ahaztu ez	<b>DAKITZUEN</b> <i>dakizuen</i>	(Hori/horreik zuei)
Apuntau deixiela, ahaztu ez	<b>DAKIXUEN</b> <i>dakien</i>	(Hori/horreik harei)

**NOR-NORK / Subjuntiboa (Nor 3. singularra)**

Nik ha ikusi	<b>DAITTETEN</b> <i>dezadan</i>
Hik ha ikusi	<b>DAIXAN/DAIXENAN</b> <i>dezaan/dezanan</i>
Harek ha ikusi	<b>DAIXEN</b> <i>dezan</i>
Guk ha ikusi	<b>DAIGUN (geixan/geixenan)</b> <i>dezagun</i>
Zuk ha ikusi	<b>DAIZUN</b> <i>dezazun</i>
Zuek ha ikusi	<b>DAIZUEN</b> <i>dezazuen</i>
Hareik ha ikusi	<b>DEIXIEN</b> <i>dezaten</i>

**NOR-NORI-NORK / Subjuntiboa (Nor 3. singularra)**

Nik hari ebatu	<b>DEITTETEN</b> <i>diezaiodan</i>
Hik (mutille) hari ebatu	<b>DEIXAN</b> <i>diezaioan</i>
Hik (neskie) hari ebatu	<b>DEIXENAN</b> <i>diezaionan</i>
Harek hari ebatu	<b>DEIXON</b> <i>diezaion</i>
Guk hari ebatu	<b>DEIXAGUN</b> <i>diezaiozun</i>
Zuk hari ebatu	<b>DEIXOZUN</b> <i>diezaiozun</i>
Zuek hari ebatu	<b>DEIXOZUEN</b> <i>diezaiozuen</i>
Hareik hari ebatu	<b>DEIXUEN</b> <i>diezaioten</i>

**NOR / Agintera**

NI	
HI	hai <i>hadi</i>
HA	bei <i>bedi</i>
GU	
ZU	zaiz <i>zaitez</i>
ZUEK	zaie <i>zaitezte</i>
HAREK	

**NOR-NORI / Agintera**

	<b>NIRI</b>	<b>HARI</b>	<b>HAREI</b>
HI	hakitt	hakixo	hakixue
ZU	zakitt		

**NOR-NORK / Agintera**

	<b>HIK (g)</b>	<b>HIK (e)</b>	<b>ZUK</b>	<b>ZUEK</b>
NI	naik	nain	naizu	naizue
HA	egik	egin	egizu	egizue
GU	gaik	gain	gaizu	gaizue
HAREIK	egik	egin	egizu	egizue

**NOR-NORI-NORK / Agintera**

	<b>NIRI</b>	<b>HIRI (g)</b>	<b>HIRI (e)</b>	<b>HARI</b>	<b>GURI</b>	<b>ZURI</b>	<b>ZUEI</b>	<b>HAREI</b>
NIK								
HIK (g)	irek			ixok	ik			ixok
HIK (e)	iren			ixon	in			ixon
HAREK								
GUK								
ZUK	irezu			iozu	iguzu			iozu
ZUEK	irezue			iozue	iguzue			iozue
HAREIK								

**JOAN****Oraina**

NI	noie <i>naixuek naixuen</i>
HI	hoie
HA	doie <i>joiek joien</i>
GU	goiez <i>goiezak goiezan</i>
ZU	zoiez
ZUEK	zoieze
HAREIK	doiez <i>joiezak joiezan</i>

**Lehena**

NI	ninddoien <i>ninddoian ninddoienan</i>
HI	hinddoian/enan
HA	oien <i>joian joienan</i>
GU	ginddoiezen <i>ginddoiezan ginddoiezenan</i>
ZU	zinddoiezen
ZUEK	zinddoiezen
HAREIK	oiezen <i>joiezan joiezenan</i>

**ETORRI****Oraina**

NI	nator <i>natok naton</i>
HI	hator
HA	dator <i>jatok jaton</i>
GU	gatoz <i>gatozek gatozen</i>
ZU	zatoz
ZUEK	zatoze
HAREIK	datoz <i>jatozek jatozan</i>

**Lehena**

NI	natorren <i>natorran natorrenan</i>
HI	hatorren
HA	atorren <i>jatorran jatorrenan</i>
GU	gatozen <i>gatozan gatozenan</i>
ZU	zatozen
ZUEK	zatozen
HAREIK	atozen <i>jatozan jatozenan</i>

**Baldintza**

NI	
HI	
HA	baletor <i>baletok baletin</i>
GU	
ZU	
ZUEK	
HAREIK	baletoz <i>baletozek baletozen</i>

**IBILI****Oraina**

NI	nabil <i>nabik nabin</i>
HI	habil
HAURA	dabil <i>jabik jabin</i>
GU	gabitz <i>gabitzak gabitzan</i>
ZU	zabitz
ZUEK	zabitze
HAREIK	dabitz <i>jabitzek jabitzan</i>

**Lehena**

NI	nabillen <i>nabillan nabillenan</i>
HI	habillen
HA	abillen <i>jabillan jabillenan</i>
GU	gabitzen <i>gabitzan gabitzenan</i>
ZU	zabitzen
ZUEK	zabitzien
HAREIK	abitzen <i>jabitzan jabitzenan</i>

**Baldintza**

NI	banebil <i>banebik banebin</i>
HI	bahebil
HA	balebil <i>balebik balebin</i>
GU	bagebitz <i>bagebitzek bagebitzen</i>
ZU	bazebitz
ZUEK	bazebitze
HAREIK	balebitz <i>balebitzek balebitzen</i>

**EDUKI****Oraina**

NIK	dauket <i>jaukat</i> <i>jaukenat</i>
HIK	daukek/n
HAREK	dauko <i>jaukek</i> <i>jauken</i>
GUK	daukau <i>jaukau</i> <i>jaukenau</i>
ZUK	dauketzu
ZUEK	dauketzue
HAREIK	daukie <i>jaukiek</i> <i>jaukene</i>

**Lehena**

NIK	nauken <i>naukan</i> <i>naukenan</i>
HIK	hauk(en)an
HAREK	auken <i>jaukan</i> <i>jaukenan</i>
GUK	gauken <i>gaukan</i> <i>gaukenan</i>
ZUK	zauketzun
ZUEK	zauketzuen
HAREIK	aukien <i>jaukien</i> <i>jaukenen</i>

**JAKIN****Oraina**

NIK	dakit <i>jakixat</i> <i>jakizenat</i>
HIK	dakik/n
HAREK	daki <i>jakik</i> <i>jakin</i>
GUK	dakigu <i>jakixau</i> <i>jakixenau</i>
ZUK	dakitzu
ZUEK	dakitzue
HAREIK	dakixie <i>jakixiek</i> <i>jakixene</i>

**Lehena**

NIK	nakixen <i>nakixan</i> <i>nakixenan</i>
HIK	hakixan/enan
HAREK	akixen <i>jakixan</i> <i>jakixenan</i>
GUK	gakixen <i>gakixan</i> <i>gakixenan</i>
ZUK	zakitzun
ZUEK	zakitzuen
HAREIK	akixien <i>jakixien</i> <i>jakixenen</i>

**Baldintza**

NIK	baneki <i>banekik</i> <i>banekin</i>
HIK	baheki
HAREK	baleki <i>balekik</i> <i>balekin</i>
GUK	bageki <i>bagekik</i> <i>bagekin</i>
ZUK	bazekitzu
ZUEK	bazekitzue
HAREIK	balekixie <i>balekixiek</i> <i>balekixene</i>

**EGON****Oraina**

NI	nau <i>nak</i> <i>nan</i>
HI	hau
HA	dau <i>jak</i> <i>jan</i>
GU	gaz <i>gazak</i> <i>gazan</i>
ZU	zaz
ZUEK	zaze
HAREIK	daz <i>jazak</i> <i>jazan</i>

**Lehena**

NI	nenguen <i>ninguan</i> <i>ningunan</i>
HI	hinguen
HA	auen <i>jauan</i> <i>jauenan</i>
GU	gengozen <i>gingozan</i> <i>gingozenan</i>
ZU	zingozen
ZUEK	zingozen
HAREIK	azen <i>jazan</i> <i>jazenan</i>

**Baldintza**

NI	banengo <i>banengok</i> <i>banengon</i>
HI	bahengo
HA	balego <i>balegok</i> <i>balegon</i>
GU	bagengoz <i>bagengozek</i> <i>bagengozen</i>
ZU	bazengoz
ZUEK	bazengoze
HAREIK	balegoz <i>balegozek</i> <i>balegozen</i>



**EKARRI****Oraina**

NIK	dakat <i>jakarrat</i> <i>jakarrenat</i>
HIK	dakak/n
HAREK	dakar <i>jakak</i> <i>jakan</i>
GUK	dakargu <i>jakarrau</i> <i>jakarrenau</i>
ZUK	dakatzu
ZUEK	dakatzue
HAREIK	dakarre <i>jakarrek</i> <i>jakarrene</i>

**Lehena**

NIK	nakarren <i>nakarran</i> <i>nakarrenan</i>
HIK	hakarr(en)an
HAREK	akarren <i>jakarran</i> <i>jakarrenan</i>
GUK	gakarren <i>gakarran</i> <i>gakarrenan</i>
ZUK	zakatzun
ZUEK	zakatzuen
HAREIK	akarren <i>jakarrien</i> <i>jakarrenen</i>

**Baldintza**

HAREK	balakar

**EROAN****Oraina**

NIK	daruet <i>jaruat</i> <i>jaruenat</i>
HIK	daruek/n
HAREK	darue <i>jaruek</i> <i>jaruen</i>
GUK	daruuu <i>jaruuu</i> <i>jaruenau</i>
ZUK	daruetzu
ZUEK	daruetzue
HAREIK	darue <i>jaruek</i> <i>jarune</i>

**Lehena**

NIK	naruen <i>naruan</i> <i>naruenan</i>
HIK	haru(en)an
HAREK	aruen <i>jaruan</i> <i>jaruenan</i>
GUK	garuen <i>garuan</i> <i>garuenan</i>
ZUK	zaruen
ZUEK	zaruen
HAREIK	aruen <i>jaruen</i> <i>jarunen</i>

**ERAUTSI****Oraina**

NIK	darutset <i>jarutsat</i> <i>jarutsenat</i>
HIK	darutsek/n
HAREK	darutso <i>jarutsek</i> <i>jarutsen</i>
GUK	darutsau <i>jarutsau</i> <i>jarutsenau</i>
ZUK	darutsezu
ZUEK	darutsezue
HAREIK	darutsie <i>jarutsiek</i> <i>jarutsene</i>

**ERABILI****Oraina**

NIK	dabit <i>jabixat</i> <i>jabixenat</i>
HIK	dabik/n
HAREK	dabil <i>jabik</i> <i>jabin</i>
GUK	dabigu <i>jabixau</i> <i>jabixenau</i>
ZUK	dabitzu
ZUEK	dabitzue
HAREIK	dabixe <i>jabixiek</i> <i>jabixene</i>

**Lehena**

NIK	nabixen <i>nabixan</i> <i>nabixenan</i>
HIK	habix(en)an
HAREK	abixen <i>jabixan</i> <i>jabixenan</i>
GUK	gabixen <i>gabixan</i> <i>gabixenan</i>
ZUK	zabitzun
ZUEK	zabitzuen
HAREIK	abixien <i>jabixien</i> <i>jabixenen</i>

**ESAN (\*io)****Oraina**

NIK	dixot <i>jixoat</i> <i>jixonat</i>
HIK	dixok/n
HAREK	dixo <i>jixok</i> <i>jixon</i>
GUK	
	dixozu
ZUK	dixozue
ZUEK	dixue
HAREIK	<i>jixuek</i> <i>jixone</i>

**Lehena**

NIK	
HIK	
HAREK	ixon <i>jixoan</i> <i>jixonan</i>
GUK	
ZUK	
ZUEK	
HAREIK	ixuen <i>jixuen</i> <i>jixonen</i>





<< Gure aurretik herriko euskerie azterketan eta lantzen ibili dien danai eskerrak emonez >>

*Laguntzaileak:*



ARAMAIOKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA